



**ARRATIAKO UDALEN  
MANKOMUNITATEA**

BERDINTASUN ZERBITZUA

## **ZEANURIKO UDALA**

### **2013KO EBALUAZIOA.**

#### **Sarrera**

2013ko martxoaren 26an, Arratiako Udalen Mankomunitateko Osoko Bilkurak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana 2012-2015 onartu zuen.

Planean, besteak beste honako ekintza zetorren:

*"4. Udalei berdintasun jarduerak gauzatzen laguntzea eta kolaboratzea, bertaratuta, helbide elektronikoz edo telefonoz."*

Hala, 2013an, AUMko Berdintasun Zerbitzuak laguntza teknikoa eman eta kolaboratu du Zeanuriko Udalarekin berdintasun politikak aurrera eramateko.

Alde batetik, ekintza batzuk Udalean bertan gauzatu dira, eta beste aldetik, izan dira ekintzak Arratia guztirako antolatu direnak eta Zeanurik ere parte hartu duena.

Zeanuriko Udalak 2012-2015 Berdintasun Plana du. 2013An, urte horretarako aurrez ikusitako ekintzak gauzatu dira, ebaluazioan zehaztuko den legez.

2013an egindako beharraren ebaluazioa egiteko orduan, kontuan izan da aipatutako guztia. Beraz, ebaluazioak Berdintasun Planak dituen lan ildoak jarraituko ditu, hain zuzen ere 2010ean onartutako EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak IX Legealdirako zehaztutakoak.

#### **BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA**

Berdintasunaren printzipioa Zeanuriko Udalean bertan eta bere funtzionamenduan txertatzea bermatuko duten ekintzak.

Zeanuriko Udalak genero ikuspegia udalaren jardueretan txertatzeko prozesua jarri du martxan 2013an. Hala, prozesuan lau ardatz landu dira: erabilitako hizkera eta irudiak, datu desagregatuak, osaketa parekidea eta berdintasun klausulak.

Horretarako, Udalak Arratiako Udalen Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuaren laguntza izan du. Hain zuzen ere Zerbitzuak prestakuntza, jarraipena, ebaluazioa eta materiala prestatu eta zertu ditu, apurka-apurka genero ikuspegia jarduera guztietan sar dadin.

- Aurrekontu-partida bat bideratuko da Planean jasotako ekintzak egiteko. Halaber, giza baliabideei behar besteko denbora emango zaie Plana Indartzeko, aintzat hartuta zein den Udalaren ahalmena.

- Hizkuntza eta irudi ez sexistak identifikatzea eta apurka-apurka gehitzea
- Berdintasunari buruzko berriazko prestakuntza ematea. Saiok: beharginak eta politikariak. Taldean eta banaka. Gida, berdintasun klausulak...
- Apurka-apurka sexu-aldagaia sartzeko galdeketetan, formularioetan, aplikazioetan...
- Laguntza-harremanak sortzea gizarte-eragileekin eta Arratiako Mankomunitatearekin

## **EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALOREAK ALDATZEA**

Generoen hierarkian oinarritutako jendarte ereduaren eraldaketara bideratutako ekintzak.

- Generoari buruzko oinarritzko kontzeptuak lantzeko sentsibilizaziorako tailer parte-hartzailea. Azaroak 25. Osakidetzarekin batera.
- Martxoak 8 eta Azaroak 25 ospatu eta aldarrikatzea, elkarlanean. Adierazpenik?
- Inauterietako gaia hautatzea, jaiek, oro har, eta mozorroek, zehazki, genero-estereotipoak ez sustatzeko
- Jendaurrean berba egiteko tailerra.

## **GIZARTE-ANTOLAKUNTZA PARTEKATUA**

Espazioen, funtzioen eta lanaren genero araberako banaketa gainditzera eta jendartea antolatzeko eredu berrira bideratutako ekintzak.

- Erantzukidetasuna lantzeko gizonezkoentzako tailerra. Gizonduz.
- Zeanuriko Eskolarekin egindakoa: aurkezpena. Laguntza teknikoa eskaini eta A25erako materiala bidali.

## **EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA**

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzera bideratutako ekintzak.

- Prebentzio-tailerra, zenbait gairekin: emakumeenganako indarkeria-mota ezberdinak azaltzea, zer egin indarkeria jasanez gero edo baten batek jasaten duela jakinez gero, tratatu txarrak jasaten dituzten pertsonen ezaugarriak...
- Laburpen bat egitea dauden jazarpen-mota ezberdinekin eta Legegintzaren arabera duten definizioari jarraiki
- Genero-indarkeria jasaten duten pertsonentzako informazio baliagarria zabaltzea
- Beldur Barik lehiaketa: Informazioa Gaztetxean eta Beldur Barik graffitia.

- Prestakuntza: Udal langileentzako prestakuntza horrelako kasuetan zer egin jakiteko.
- Protokoloaren jarraipena: Arreta hobetzeko mahaiak
- Sentsibilizazioa. Arratiako hedabideetan emandako informazioa: Gorbeialde Irratia, Begitu, AUMko aldizkaria, Deia...